



# Erabiltzailearen Eskuliburua

OT-C550

OT-C560

OT-C630

OT-C635

# Aurkibidea .....

<b>Erabiltzeko oharrak .....</b>	<b>4</b>
<b>Informazio orokorra.....</b>	<b>8</b>
<b>1. Zure telefonoa .....</b>	<b>10</b>
1.1 Teklak.....	11
1.2 Hasierako pantailako ikonoak .....	13
<b>2. Martxan jartzea.....</b>	<b>14</b>
2.1 Erabiltzeko moduan jartzea.....	14
2.2 Telefonoa piztea .....	17
2.3 Telefonoa itzaltzea.....	17
<b>3. Deiak.....</b>	<b>18</b>
3.1 Deiak egitea .....	18
3.2 Deiak jasotzea .....	19
3.3 Esku-librekoarekin deitzea.....	19
3.4 Hitz egiten ari zarela erabil ditzakezun funtzioak.....	20
3.5 Elkarrizketa grabatzea .....	20
3.6 Dei anizkoitzak.....	21
<b>4. Menua .....</b>	<b>23</b>
4.1 Menuan sartzea.....	23
4.2 Funtzioak antolatzea.....	23
<b>5. Gehigarriak.....</b>	<b>27</b>
5.1 Kalkulagailua.....	27
5.2 Moneta-bihurgailua.....	27
5.3 Agenda .....	27
5.4 Ordu-eremuak.....	29
5.5 Soinuak grabatzea .....	30
5.6 Erloju iratzargailua .....	31
5.7 Automatikoki piztea/jizaltzea .....	31

<b>6. Multimedia-bilduma.....</b>	<b>32</b>
6.1 Memoriaren egoera.....	32
6.2 Soinu-bilduma.....	32
6.3 Irudi-bilduma.....	33
6.4 Estekak .....	34
<b>7. Aisia .....</b>	<b>35</b>
7.1 Jokoak .....	35
7.2 Java.....	35
<b>8. WAP .....</b>	<b>36</b>
8.1 Hasierako orria .....	36
8.2 Markagailuak.....	36
8.3 URL helbidera joatea.....	36
8.4 Doikuntzak .....	36
8.5 Jasotako Push mezuak .....	38
8.6 Aukerak .....	38
<b>9. Mezuak.....</b>	<b>39</b>
9.1 Mezu bat sortzea.....	39
9.2 Sarrerako ontzia.....	41
9.3 Zirriborroa.....	44
9.4 Txantiloia.....	44
9.5 Irteerako ontzia .....	44
9.6 Doikuntzak .....	44
<b>10. Doikuntzak .....</b>	<b>47</b>
10.1 Ordua eta eguna .....	47
10.2 Soinuak.....	47
10.3 Segurtasuna .....	47
10.4 Profilak .....	49
10.5 Autonomia.....	49
10.6 Bistaratzea.....	49
10.7 Sarea .....	50
10.8 Zuzeneko sarbideak.....	50
10.9 Hizkuntza.....	50

<b>11. Kamera .....</b>	<b>51</b>
11.1 Erabilera.....	51
11.2 Kameraren menua.....	52
11.3 Doikuntzak .....	54
11.4 Laguntza.....	55
<b>12. Aurkibidea.....</b>	<b>56</b>
12.1 Kontaktuen zerrenda.....	56
12.2 Guztia ezabatzea.....	57
12.3 Direktorioa hautatzea .....	57
12.4 Egoera.....	57
12.5 Kopiatzea.....	57
12.6 Kontaktua eranstea.....	58
<b>13. Deiei buruzko informazioa.....</b>	<b>59</b>
13.1 Deien kontagailua.....	59
13.2 Deien doikuntzak.....	59
13.3 Dei-zerrenda .....	61
<b>14. Agenda.....</b>	<b>62</b>
14.1 Gertaera berri bat sortzea.....	62
14.2 Aurreko gertaerak ezabatzea.....	62
14.3 Gertaerak antolatzea .....	63
14.4 Gertaeren ikuspegia.....	63
<b>15. Zuzeneko sarbideak .....</b>	<b>64</b>
<b>16. Profilak .....</b>	<b>65</b>
16.1 Profilak.....	65
16.2 Soinuak.....	65
16.3 Bistaratzea .....	65
<b>17. Karaktereen taula .....</b>	<b>67</b>
<b>18. Telefonoaren bermea.....</b>	<b>69</b>
<b>19. Osagarriak .....</b>	<b>71</b>
<b>20. Arazoak eta irtenbideak .....</b>	<b>72</b>

## Erabiltzeko oharrak.....

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/jedo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule izango.

### • SEGURTASUNA IBILGAILUAN

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, telefono mugikorra gidatzean erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, esku libreko kit eramangarria...) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa erabiltzea debekatzen zaio gidariari.

Telefonoak erradiozioak igortzen ditu piztuta dagoenean, eta horrek ibilgailuko ekipo elektronikoetan interferentziak sor ditzake, adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistematan (ABS), segurtasuneko airbagean, etab. Horregatik, neurri hauek hartu behar dituzu:

- ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan,
- kontsultatu ibilgailuaren fabrikatzailearekin edo kontzesionarioarekin, ibilgailu barruko tresnak telefono mugikorraren irrati-maiztasunaren aurka behar bezala babesturik daudela egiaztatzeko.

### • ERABILTZeko KONDIZIOAK

Noizean behin telefonoa itzaltzea aholkatzen dizugu, funtzionamendua optimizatzeko.

Itzali telefonoa hegazkinean, prozesu judizialei aurre egin behar ez izateko.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Telefono hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irrati-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Arauak errespetatu erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan.

Piztuta dagoenean, ez jarri telefonoa inoiz tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, intsulina-ponpa, etab.) 15 cm-ra baino gutxiagora. Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarrarian, baizik beste aldekoan.

Entzumen-arazorik ez izateko, hartu deia telefonoa belarrira hurbildu aurretik. Esku libreko funtzioa erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik, bolumen anplifikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako.

Haurrek ez dezatela telefonoa erabili zaintzarik gabe.

Karkasa desmuntagarria ordezkatzeko, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak eduki ditzakeela produktuak.

Kontu handiz ibili beti telefonoarekin, eta gorde ezazu hautsik gabeko leku garbian. Ez utzi telefonoa ingurune kaltegarrietan (hezetasuna edo kondentsazioa, euria, likidoak sartzea, hautsa, itsas brisa, etab.). Fabrikatzaileak -20°C eta +55°C bitarteko temperatura gomendatzen du. 55 °C-tik gorako temperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da eta ez dakar arrisku berezirik.

Ez saiatu telefonoa zuk zeuk irekitzen edo konpontzen.

Ez dadila telefonoa erori, ez jaurti eta ez saiatu tolesten.

Ez pintatu telefonoa.

Zure telefonoarekin bateragarriak diren Alcatel bateriak, kargagailuak eta osagarriak soilik erabili (ikus osagarrien zerrenda, 71. orrialdean). Hala egiten ez bada, T&A Mobile Phones Limited-ek eta haren filialek ez dituzte haien gain hartuko gerta daitezkeen kalteak.

Ez bota telefonoa udalaren zabor-ontzietara. Ongi irakurri produktu elektronikoak zakarretara nola bota behar diren zehazten duen tokiko araudia.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.

Pertsona batzuek epilepsi krisiak jasan ditzakete edo kordea gal dezakete argi distiratsuen ondorioz (adibidez, bideojokoetakoak). Epilepsi krisi horiek edo kordearen galera inoiz jasan ez duenak ere izan dezake. Krisiren bat jasan baduzu edo kordea galdu baduzu, edo zure familian horrelako zerbait gertatu izan bada, galdetu medikuari telefonoan bideojoko horiek erabili aurretik edo telefonoko argi distiratsua aktibatu aurretik. Gurasoek zaindu behar dituzte haurrak, bideojoko horiek edo argi distiratsua dituzten beste funtzio batzuk erabiltzen dituztenean. Norbaitek sintoma hauetako bat edukiz gero, telefonoa erabiltzeari utzi eta medikuari galdetu behar dio:

konbultsioak, begietako edo muskuluetako uzkurdurak, kordearen galera, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Sintoma horiek gertatzeko aukerak mugatzeko, hartu neurri hauek:

- nekatuta bazaude edo lo egiteko beharra baduzu, ez jolastu telefono mugikorarekin eta ez erabili argi distiratsua duten funtzioak,
- orduro gutxienez 15 minutuko atsedena hartu,
- jolastu beti gelako argiak piztuta daudela,
- jolasteko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.

Zure telefonoko jokoak erabiltzean, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste atalen bateko giharretako mina eduki dezakezu. Segitu jarraibide hauei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo muskuluetako edo hezurretako beste lesiorik ez izateko:

- gutxienez 15 minutuko atsedena hartu telefonoko jokoetan aritzen zaren ordu bakoitzeko,
- jolasten ari zaren bitartean, eskuak, eskumuturrak edo besoak nekatu egiten bazaizkizu edo minduta sentitzen badituzu, hartu atsedena hainbat orduz berriro jokatzen hasi aurretik,
- jokatzen ari zaren bitartean edo jokatu ondoren, eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta segitzen badute, ez jolastu gehiago eta joan medikuarenera.



Zure telefonoak, bateriak edo osagarriak ikur hau badute, gune hauetako batera eramane behar dituzu gehiago erabil ezin ditzakezunean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzi bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatze zentroetara.
- Saltokietako edukiontziak.

Produktuak birziklatu egingo dira, ingurumenean substantziarik ez zabaltzeko, eta haren osagaiak berrerabili egingo dira.

Europako Batasuneko herrialdeetan, doan da bilketa-puntuetara sartzea, eta ikur hori duten produktu guztiak toki horietan utzi behar dira.

Europako Batasuneko kide ez diren herrialdeetan, produktu horiek ez dira ohiko zabortegietara bota behar, herrialdean edo eskualdean birziklatzeko eta biltzeko aukera badago. Bilketa-puntuetara eramane behar dira, birzikla daitezten.

#### • BATERIA

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela. Bateria erabiltzean, ohar hauek eduki behar dira kontuan:

- Ez ireki bateria (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago).
- Ez egin zulorik, ez desmuntatu, ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez bota sutara, ezta zaborretara ere, ez eduki 60 °C-tik gorako tenperaturetan.

Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu ingurumena babesteari buruz indarrean dauden legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako. Ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo T&A Mobile Phones Limited-ek eta/edo haren filialek aholkatu gabekorik.

#### • KARGAGAILUAK

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0 °C eta 40 °C bitartean funtzionatzen dute. Zure telefonoaren kargagailuak informazio-tratamendurako eta bulegoko segurtasun-arauak betetzen ditu eta erabilera horretarako bakarrik diseinatuta dago.

#### • UHIN ELEKTROMAGNETIKOAK

Telefono mugikorren modelo guztiak nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) zuzentarauarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea – batez ere telefono mugikorren erabiltzaileena– eskakizun edo zuzentarau horien funtsezko betebeharra da. IRRATI-UHINEI BURUZKO NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DITU TELEFONO MUGIKOR HONEK.

Zure telefono mugikorra irrati-uhinen igorlea eta hartzailea da. Nazioarteko eskakizunek (ICNIRP)<sup>(1)</sup> eta Europako Batasuneko Kontseiluak (1999/519/EE gomendioa) gomendatutako irrati-maiztasunen (IM) mugak errespetatuz diseinatuta eta fabrikatuta dago. Muga horiek eskakizun-multzoa osatzen dute eta publikoarentzat baimendutako irrati-maiztasunaren mailak zehazten dituzte. Aditu independenteek ezarri dituzte, ebaluazio zientifiko erregulatu eta zehatzetan oinarrituz. Segurtasun-tarte handia hartzen duten kontuan, guztion segurtasuna bermatu ahal izateko, edozein dela ere gure adina edo osasun-egoera.

Telefono mugikorren arauak "SAR" (Specific Absorption Rate = Absortzio Espezifikokoaren Tasa) izeneko neurri-unitatea definitzen du. Europako Batasuneko Kontseiluak SAR tasarentzat gomendatutako muga 2 W/kg da, giza ehunaren 10 gramoko batez beste.

Probak potentzia-mailarik altuena igorri egin dira, maiztasun-banda guztietan eta funtzionamendu estandarreko posizioetan.

SAR tasa potentzia-mailarik altuenean ebaluatzen den arren, telefono mugikorraren SAR tasa erreala, normalean, probetan lortutako gehieneko balioen azpitik dago. Beraz, telefono mugikor hau sarerako konexioa ziurtatzeko beharrezkoa den potentzian soilik erabiltzeko diseinatuta dago. Oro har, oinarri-estazioko antenatik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta potentzia-maila baxuagoa izango du telefono mugikorrak.

Telefono mugikor modelo honen SAR tasaren gehieneko balioa belarriaren ondorako eta arauaren arabera 1,0 W/kg da. Nahiz eta SAR mailak telefono batetik bestera edo erabiltzeko modu batetik bestera aldatu, maila guztiek irrati-maiztasunei buruz indarrean dauden nazioarteko eskakizunak eta Europako gomendioa betetzen dituzte.

Munduko Osasun Erakundearen (MOE) iritziz, "egungo zientzia-jakintzak ez du justifikatzen telefono mugikorrak erabiltzeko neurri bereziak hartzea. Kezka izanez gero, bakoitzak erabaki dezake norberak edo bere seme-alabek irrati-maiztasunen eraginpean denbora gutxiago egotea, komunikazioen iraupena murriztuz edo esku libreko aukera erabiliz. Hala, telefonoa burutik eta gorputzetik urrunago dago" (Memo 193. zk). MOEk eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruz duen informazio osagarria Interneteko helbide honetan aurkituko duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.

Zure telefonoak barneko antena bat du. Komunikazioetan funtzionamendu-kalitaterik onena izateko, ez ukitu edo hondatu.

<sup>(1)</sup> ICNIRP eskakizunak herrialde hauetan aplikatzen dira: Erdialdeko Amerika (Mexiko izan ezik), Hego Amerika, Iparraldeko eta Hegoaldeko Afrika, Asia-Pazifikoa (Taiwan eta Korea izan ezik), Australia.

<sup>(2)</sup> Europako gomendioa (1999/519/CE) herrialde hauetan aplikatzen da: Europa, Israel.

## Informazio orokorra .....

- **Interneteko helbidea:** [www.tctmobile.com](http://www.tctmobile.com)
- **Wap helbidea:** [wap.my-onetouch.com](http://wap.my-onetouch.com)
- **Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zenbakia:** ikus "T&A Mobile Phones Services" liburuxka edo Interneteko gure gunea.

Interneteko gure gunean, on line kontsultatu ahal izango duzu ohiko galderen foroa (FAQ), edo zuzenean gurekin harremanetan jarri ahal izango duzu posta elektronikoz galderak egiteko.

Zure telefonoa telefono-deiak egin eta jasotzeko diseinatutako gailua da. GSM sareetan funtzionatzen du, 900 eta 1800 MHz bandetan.

**CE** Honen bidez, T&A Mobile Phonesek adierazten du Alcatel OT-C550, OT-C560 OT-C630 eta OTC635 telefono mugikorrek 1999/05/EE zuzentarauko oinarrizko baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak betetzen dituztela.



T9 Text Input aukera patente batek edo hainbatek babesten dute: Ipar Ameriketako patenteak: 5,187,480,5, 818,437,5,945,928, 5,953,541, 6,011,554, 6,286,064, 6,307,548, 6,307,549, eta 6,636,162,6,646,573; Europako patenteak 0 842 463 (96927260.8), 1 010 057 (98903671.0), I 018 069 (98950708.2); eta munduan zehar erregistratzen ari diren beste zenbait.

## Lapurretaren aurkako babesa <sup>(1)</sup>

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Lehen aldiz erabiltzen duzunean, komeni da zenbaki hori idaztea (\*, #, 0, 6, # teklak sakatuta) eta leku seguruan gordetzea; izan ere, Poliziak edo operadoreak eska diezazuke telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.


## Desberdintasunak

Litekeena da desberdintasunak egotea gidaliburu honen eta telefonoaren benetako funtzionamenduaren artean, telefonoaren softwarearen bertsioaren arabera edo operadore bakoitzaren zerbitzu espezifikoaren arabera.


# 1 Zure telefonoa .....

## Teklen funtzioak, deiak jasotzeko/egiteko egoeran

OT-C550/560

























OT-C630/635



<sup>(1)</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

## 1.1 Teklak

-  <sup>(1)</sup> Deiak jasotzeko/egiteko egoeran, telefonoa pizteko /itzaltzeko (luze sakatuta)
-  <sup>(2)</sup> Esekitzeko  
Dei bat ez onartzeko  
Hasierako pantailara itzultzeko (luze edo labur sakatuta)
-  <sup>(1)</sup> Deitzeko / Esekitzeko
-  <sup>(2)</sup> Deien memoriara joateko (labur sakatuta)
-  Mugitzeko, komunikazio batean bolumena doitzeko
-  <sup>(1)</sup> Ezkerreko funtzio-tekla:
-  <sup>(2)</sup> Aukerak / Menua / Berretsi  
Jasotako mezua irakurtzeko

-  <sup>(1)</sup> Eskuineko funtzio-tekla:
-  <sup>(2)</sup> Aurreko pantailara itzuli (labur sakatuta)  
Sartzen ari den dei baten soinua isiltzeko  
Editatzeko moduan:  
Karaktere bat ezabatzeko (labur sakatuta)  
Karaktere guztiak ezabatzeko (luze sakatuta)
-   Ahots-postontzia kontsultatzeko (luze sakatuta)
-    Maiuskulak ordena honetan aldatzeko:  
Ab/ab/AB (labur sakatuta)
-   Sinboloen barrara joateko (luze sakatuta)  
Hautatutako hitza onartzeko eta/edo tarte sartzeko (labur sakatuta)  
Hizkuntzen zerrendara joateko (luze sakatuta)
-   Hauen artean aldatzen da: T9/Multitap/123 (labur sakatuta)
-    abc — 9  ra zenbakia sartzeko (luze sakatuta)  
Editatzeko moduan, hitzak (labur sakatuta) edo zifrak (luze sakatuta) idatzi













<sup>(1)</sup> OT-C550/560.

<sup>(2)</sup> OT-C630/635.

<sup>(1)</sup> OT-C550/560.

<sup>(2)</sup> OT-C630/635.

## 1.2 Hasierako pantailako ikonoak <sup>(1)</sup>


-  **Bateriaren karga-maila.**
-  **Bibragailua modua:** Telefonoak dar-dar egiten du (baina, hala ere, alarmek eta bateria baxua adierazteko alertak jo egiten dute).
-  **Isilik modua:** Telefonoak ez du soinurik, ez tonurik, ez dar-darririk egiten (baina, hala ere, alarmek eta bateria baxua adierazteko alertak jo egiten dute).
-  **Irakurri gabeko mezua.**
-  **Testu-mezuen zerrenda beteta:** zure telefonoak ezin du mezua gehiago jaso. Mezuen zerrendan sartu behar duzu, SIM txarteletako bat gutxienez ezabatzeko (ikus 44. orrialdea).
-  **Erantzun gabeko deia.**
-  **Ahots-mezu bat jaso duzu.**
-  **Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta:** deiak desbideratuta daude (ikus 60. orrialdea).
-  **Alarma programatua** (ikus 31. orrialdea).
-  **Sarearen harrera-kalitatea.**
-  **Teklatua blokeatuta.**
-  **Roaming-a harpidetutako herrialdean.**


<sup>(1)</sup> Eskuliburu honetako ikono eta irudi guztiak informazio gisa besterik ez dira ematen.

## 2 Martxan jartzea .....

### 2.1 Erabiltzeko moduan jartzea


#### Sartu SIM txartela <sup>(1)</sup>

Telefonoa erabiltzeko, SIM txartela sartu behar duzu. Txartela sartzeko, itzali telefonoa  tekla luze sakatuta.



Sartu SIM txartela txiparen aldea behera begira duela. Sartu txartela dagokion tokian. Bultza SIM txartela ateratzeko. Kokalekua ixteko, lerratu blokeatuta geratu arte.

#### Bateria sartzea eta ateratzea




Jarri bateriaren goiko irtenguneak telefonoaren bateriaren tokiaren parean. Bultza bateria blokeatuta geratu arte.


<sup>(1)</sup> Egiaztatu zure operadorearekin zure SIM txartela 3 V-koa dela. 5 V-ko txartel zaharrak ezin dira erabili. Jarri harremanetan operadorearekin.




## Bateria kargatzea





Konektatu kargagailua




- Kargatzen ari den bitartean animazio bat bistaratzen da.
- Litekeena da minutu batzuk behar izatea kargatzen hasteko.
- Ez behartu telefonoaren hartunea.
- Hainbat minutu itxaron behar dituzu bateriaren ikonoak karga-maila zehatza adierazi arte.
- Kargagailu bat konektatu aurretik, egiaztatu bateria ondo instalatuta dagoela.
- Korrante-hartuneak telefonotik gertu eta erraz iristeko moduan egon behar du, luzapen elektrikoak erabili behar ez izateko.
- Telefonoa lehen aldiz erabiltzean, kargatu erabat bateria (hiru ordu inguru). Alcatelen kargagailuak bakarrik erabili. Telefonoa egoki erabiltzeko, bateria egunero erabat kargatzea aholkatzen dugu (  ).

## Erabiltzeko oharrak







Zure telefono mugikorrek barneko antena bat du. Irratiaren seinalea hobeto har dezan eta komunikazioan funtzionamenduaren kalitatea hobea izan dadin, ez jarri eskua telefonoaren goiko aldean.


## Atzeko tapa kentzea



## Atzeko tapa jartzea




## 2.2 Telefonoa piztea

Sakatu luze  tekla. Bi segundoz ongiatorriko animazioa bistaratzen da. Behar izanez gero, idatzi PIN kodea eta berretsi ezkerreko funtzio-teklarekin.



PIN kodea zein den ez badakizu edo ahaztu bazaizu, jarri harremanetan operadorearekin. Ez utzi inoiz PIN kodea telefonotik hurbil; eta, txartela erabiltzen ez duzunean, gorde leku seguruan.


## 2.3 Telefonoa itzaltzea



Hasierako pantailan, luze sakatu  tekla.

# 3 Deiak.....


## 3.1 Deiak egitea

Hasierako pantailan, idatzi telefono-zenbakia, teklatura erabilita.



Sakatu  markatzeko eta  edo eskuineko funtzio-tekla esekitzeko.



Hasierako pantailatik, markatu/erantzun berri duzun dei baten zenbakira deitzeko, sakatu  "Jasotakoak", "Egindakoak" eta "Galdutakoak" karpitetako zenbakiak ikusteko. Mugitu eta aukeratu nahi duzun zenbakia edo izena, eta sakatu  deitzeko.

### Nazioarteko deiak egitea

Luze sakatu  tekla, "+" ikurra bistaratu arte. Idatzi herrialdeko aurrezen-bakia eta eskualdeko kodea; ondoren, idatzi solaskidearen zenbakia eta egin deia.

### Telefono-aurkibidetik zenbakia markatzea

Sakatu  tekla, modu inaktiboan, aurkibidean sartzeko. Hautatu nahi duzun zenbakia, eta sakatu .

Telefonoaren aurkibidean, zenbaki bat baino gehiago duten kontaktu guztien kasuan, lehenetsitako zenbakia bakarrik hautatuko da. Beste zenbaki bat hautatzeko, sakatu  edo .

### 3.2 Deiak jasotzea

- Deiari erantzuteko, sakatu **[** tekla
- Deia ez onartzeko, sakatu **]** tekla.
- Deiari erantzun beharrean dei horri soinua eteteko, sakatu **"Isildu"**.
- **"Dei bat zain"** funtzioa aktibatuta dagoenean sartzen ari den deiari erantzuteko, sakatu **[** Lehen deia zain geratuko da. Uneko dei bat amaitzeko, sakatu **]**.



**"Deia desbider"** aktibatuta badago, beste zenbaki batera edo ahots-postontzira desbideratuko da deia.

**"Edozein"** aukera hautatu baduzu, deiari erantzun diezaiokezu edozein tekla sakatuta (**]** izan ezik).

### 3.3 Esku-librekoarekin deitzea

Markatu nahi duzun zenbakia, eta, ondoren, sakatu **OK** edo **"Aukerak."** Ondoren, sakatu **"Esku askea akt."** Azkenik, sakatu **OK** edo **"Aukeratu"**.

Dagoeneko hitz egiten ari bazara, luze sakatu **[** tekla, esku-librekoaren modura aldatzeko, eta sakatu berriro **[** tekla, modu arruntera itzultzeko.

### 3.4 Hitz egiten ari zarela erabil ditzakezun funtzioak

Hitz egiten ari zarela, **"Aukerak."** tekla edo **OK** tekla saka dezakezu, funtzio hauetara sartzeko: **"Esku askea akt."**, **"Elkarr. grabatu"**, **"Dei-zerrenda"**, **"Izen-zerrenda"**, eta abar.

**Esku askea akt.**

- Esku-librekoa erabiltzeko.

**Isildu/Audioa aktibatu**

- Mikrofonoa aktibatzeko/desaktibatzeko.

**Elkarr. grabatu**

- Dei batean elkarrizketa grabatzeko.



Hitz egiten ari zarela bolumena alda dezakezu, **▼** edo **▲** nabigazio-teklak sakatuta.

### 3.5 Elkarrizketa grabatzea

Hitz egiten ari zarela elkarrizketa grabatzeko, hautatu **"Elkarr. grabatu"** eta sakatu **OK**. Sakatu berriro **OK** edo ezkerreko funtzio-tekla grabazioa gordetzeko eta amaitzeko. **"Isildu"** hautatu eta, ondoren, **"Elkarr. grabatu"** sakatzen baduzu, solaskidearen ahotsa bakarrik grabatuko da.

## 3.6 Dei anizkoitzak <sup>(1)</sup>

### 3.6.1 Bigarren deia egitea

Hitz egiten ari zarela edo dei bat zain dagoela, beste dei bat egin dezakezu.

Lehen deia aktibatuta dagoela eta bigarren zenbakia markatu ondoren, sakatu **OK** tekla aukera hauek bistaratzeko:

- Deiak aldatu**
  - Deien artean txandakatzeko (▼ edo ▲ ere saka ditzakezu batetik bestera aldatzeko).
- Desbideratu?**
  - Bi deiak konektatzeko. Transferentzia amaitzen denean deskonektatuko zara.
- Desbideratu?**
  - Konferentzian beste kide bat sartzeko.

### 3.6.2 Bigarren deia hartzea

Hitz egiten ari zarela beste dei bat jasotzen duzunean, telefonoa alerta-soinu bat egiten du, eta pantailan **“Dei bat zain”** mezua bistaratzen da. Ondoren, [ saka dezakezu deia hartzeko (lehen deia zain geratzen da); sakatu } deia ez onartzeko edo **OK** edo ezkerreko funtzio-tekla aukeren zerrenda bistaratzeko.

**“Deia hartu”** hautatzen baduzu, sarrerako deia hartuko duzu. **“Deia bukatu”** hautatzen baduzu, uneko deia esekiko duzu.



Zerbitzu hau aldi bereko bi deirekin (bat aktiboa eta bestea zain dagoena) baino ezin duzu erabili.

### 3.6.3 Hirugarren deia hartzea

Dei bat aktibo eta bestea zain badituzu, hirugarren deia ere jaso dezakezu. Hori egiteko, deietako bat amaitu edo konferentzia kide bat erantsi behar duzu.

Sakatu } deia ez onartzeko edo **OK** edo ezkerreko funtzio-tekla aukeren zerrenda irekitzeko.

Sarrerako deia hartzeko **“Deia hartu”** hauta dezakezu, edo **“Deia bukatu”** uneko deia amaitzeko eta ondoren sarrerako deia hartzeko. Zerbitzu hau bi deitara mugatuta dago (bat aktiboa eta bestea zain dagoena).

### 3.6.4 Konferentzia

Telefono honekin, bost pertsonarekin hitz egin dezakezu aldi berean. Deitu lehenengo solaskideari, eta, ondoren, beste bati.

Sakatu **OK** edo ezkerreko funtzio-tekla, eta hautatu **“Konferentzia”** aukeren zerrendan. Errepikatu prozedura hori bost pertsonak konektatuta egon arte.

**“Kidea ezabatu”** aukerarekin, solaskide bat konferentziatik ateraraz daiteke. **“Dei pribatua”** aukera hautatzen baduzu, pertsona bakarrarekin hitz egin dezakezu (konferentziako gainerako pertsonak zain geratzen dira).

Sakatu } tekla dei guztiak aldi berean deskonektatzeko.



Bost kide baino gutxiagoko konferentzia batean sarrerako dei bat jasotzen bada, dei horri erantzun diezaiokezu eta konferentzian erantsi. Bost kideak konektatuta badaude, deia har dezakezu, baina ezin duzu konferentzian sartu.

<sup>(1)</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

# 4 Menua .....

## 4.1 Menuan sartzea

Menu nagusian, sakatu **OK** tekla. Menua bistaritzen da, eta funtzio bakoitzaren ondoan ikono txikiak daude.

Hautatu nahi duzun menua nabigazio-tekla sakatuta (▼, ▲), eta, ondoren, sakatu berriro ezkerreko funtzio tekla, berresteko.

## 4.2 Funtzioak antolatzea

Zerrendako funtzio bakoitzerako, ikus erabiltzailearen eskuliburu honetan bakoitzari dagokion atala.



### **Aurkibidea:**

Aurkibideko erregistroetara sartu/berriak sortu eta zerrendatik deiak egin.



### **Doikuntzak:**

Ordua, data, hizkuntza, segurtasun-modua, esekitzeko modua eta abar doitu.



### **Mezuak:**

Mezuak irakurri, idatzi eta bidali. Sarrerako eta irteerako ontzietako mezuak irakurri. Parametroak doitu eta sare bidez hedatutako mezuen harrera aktibatu/desaktibatu (SMS/CB).



### **Kamera:**

Kameraren funtziorako sarbidea.



### **WAP:**

Wap funtziora sartu.



### **Aisia:**

Telefonoko bi jokoetan aritu.



### **Multimedia-bilduma:**

Irudien eta soinuen bilduman sartu.



### **Gehigarriak:**

Alarma eta kalkulagailua funtzioetara sartu.



### **Agenda <sup>(1)</sup>:**

Gertaerak sortu, gorde eta antolatu.



### **Zuzeneko sarbideak <sup>(1)</sup>:**

Sarri sartzen zaren funtzioen zuzeneko sarbideak konfiguratu.



### **Profilak <sup>(1)</sup>:**

Profilak, bistaratzeko modua eta soinuk konfiguratu.

<sup>(1)</sup> OT-C630/635.

## • **DEI-INFORMAZIOA**

- Dei-zerrenda
- Konfigurazioa
- Kontagailuak

## • **AGENDA**

- Ezabatu dena
- Kontaktoa gehitu
- Karpeta-aukera
- Tfnoan kopiatu
- <Ezabatu dena>
- Dei azkarra
- Egoera

## • **KONFIGURAZIOA**

- Soinuak:
- Perfilak
- Azaldu
- Data eta ordua
- Hizkuntza
- Autonomia
- Xendrak
- Segurtasuna
- Sarea

## • **MEZUAK**

- Mezua osatu
- Harrera-kutxa
- Bidalitakoak
- Zirriborroa
- Ereduak
- Doikuntzak

## • **KAMARA**

## • **WAP**

- Pâg. de inicio
- Markadoreak
- URLra joan
- Konfigurazioa
- Harrera-kutxa

## • **AISIA**

- Java
- Jokoak

## • **MULTIMEDIA**

- Irudi-albuma
- Soinu-albuma
- Estekak
- Memo-egoera

## • **ESTRAK**

- Agenda
- Iratzargailua
- Ordu-eremuak
- Kalkulagailua
- Unitate-aldatzail.
- Akt/Des. auto
- Soinua grabatu

## • **ANTOLATZAILEA** <sup>(1)</sup>

## • **XENDRAK** <sup>(1)</sup>

## • **PROFILAK**



- Perfilak
- Soinuak
- Azaldu

<sup>(1)</sup> OT-C630/635.

# 5 Gehigarriak

## 5.1 Kalkulagailua

Kalkulagailu hau erabil dezakezu oinarrizko kalkuluak egiteko. Zenbakiak teklatuarekin sartzen dira, eta eragiketa aritmetikoak, pantailan adierazitako nabigazio-teklekin.

Luze sakatu  hamartarraren puntua sartzeko. Onartu **OK** edo  sakatuta.

## 5.2 Moneta-bihurgailua

Dibisa baten batura bihur dezakezu, zuk hautatutako truke-tasarekin.

## 5.3 Agenda <sup>(1)</sup>

Antolatzailean gertaerak sortu, gorde eta antola ditzakezu. Antolatzailearen alerta aktibatuta dagoenean, txirrin batek edo grabatutako soinu batek jakinaraziko dizu gertaeraren unea iritsi dela.

Antolatzaileak mugikorraren memoria partekatzen du beste funtzio batzuekin (aurkibidea, irudi-bilduma, soinuak, eta abar). Mesedez, egiaztatu telefonoak memorian leku librea duela.

<sup>(1)</sup> OT-C550/560.

### 5.3.1 Gertaera berri bat sortzea

Hautatu "**<Berria>**" aukera "**Gertaerak**" atalean, eta, ondoren, sortu nahi duzun gertaera (hitzordua, zeregina, oporrak).

Idatzi ordua eta gertaeraren hasierako/amaierako data, eta jarri izena.

Doitu gogorazlea eta maiztasuna: alertak hautatutako orduan aktibatuko dira.



Gogorazleak hitzorduen eta zereginen kasuan bakarrik funtzionatzen du. Ordu-eremua aldatzean eguneratu egiten dira.

### 5.3.2 Aurreko gertaerak ezabatzea

Amaitutako gertaerak ezaba ditzakezu. Idatzi hasierako data eta sakatu **OK** bitan, ordura arteko gertaera guztiak ezabatzeko.

Antolatzailean programatutako gertaera guztiak ezabatzeko, idatzi hasierako data gisa hemendik urte batzuetarako data (adibidez, 2010eko abenduaren 31); hartara, data horren aurreko gertaera guztiak ezabatu egingo dira.

### 5.3.3 Gertaerak antolatzea

Hautatu zerrendako gertaera eta sakatu **OK** edo ezkerreko funtzio-tekla, aukera hauek bistaratzeko:

- |                      |   |
|----------------------|---|
| <b>Ezabatu</b>       | <ul style="list-style-type: none"><li>• Ezabatu aukeratutako gertaera.</li></ul>                                |
| <b>Aldatu</b>        | <ul style="list-style-type: none"><li>• Aldatu aukeratutako gertaera.</li></ul>                                 |
| <b>Soinua aldatu</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Aldatu hautatutako gertaeraren alarma-motari dagokion doinua.</li></ul> |

Aldizkako gertaera bat aldatzen bada, gertaera horri dagozkion guztiak aldatuko dira.

### 5.3.4 Gertaeren ikuspegia

Zure antolatzailean gordetako gertaerak hiru modutara ikus daitezke: **“Egunerokoa”**, **“Astero ikusi”** eta **“Hileroko bista”**. Hautatu ikuspegi bat eta sakatu ezkerreko funtzio-tekla; ondoren, sakatu ▼ edo ▲, aurreko edo hurrengo eguna, astea edo hilabetea bistaratzeko.

## 5.4 Ordu-eremuak

Hautatutako nazioarteko ordu-eremuan urruneko erlojua eta tokiko erlojua doi eta ikus ditzakezu.



Pantaila nagusian tokiko eta nazioarteko erlojua hautatu ondoren, pantaila-babes gisa hautatutako irudia ez da bistaratuko pantailan; nazioarteko erloju estandarra bistaratuko da.

### 5.4.1 Ordu-eremuak

Sakatu ▼ edo ▲ **“Aktibatu”** edo **“Desaktibatu”** aukera doitzeko **“Aktibatu”** hautatuz gero, zuk hautatutako eremu bat ikusi ahal izango duzu.

### 5.4.2 Tokiko doikuntzak

- |                     |   |
|---------------------|---|
| <b>Ordua ezarri</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>Doitu ordua teklak sakatuta.</li></ul>  |
| <b>Tokiko ordua</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>Sakatu ▼ edo ▲ zure inguruari dagokion ordu-eremua hautatzeko.</li></ul>  |
| <b>Udako ordut.</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>Hautatu <b>“Aktibatu”</b> edo <b>“Desaktibatu”</b>, tokiko ordu-eremurako udako ordutegia hautatzeko.</li></ul> |

### 5.4.3 Tokiko/nazioarteko ordu-eremua aldatzea

Tokiko orduaren orde z nazioartekoa jarri, eta alderantziz.

### 5.4.4 Atzerriko doikuntzak

- |                     |  |
|---------------------|--|
| <b>Tokiko ordua</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>Sakatu ▼ edo ▲ ordu-eremua hautatzeko.</li></ul>   |
| <b>Udako ordut.</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>Hautatu <b>“Aktibatu”</b> edo <b>“Desaktibatu”</b>, nazioarteko ordu-eremurako udako ordutegia hautatzeko.</li></ul> |



Programatutako alarmak, gogorazleak eta gertaerak ordu-eremuarekiko independenteak dira. A ordu-eremuan alarma bat edo gertaera bat 9:00etan programatzen baduzu, alarmak edo gertaerak 9:00etan joko du B ordu-eremura aldatuta ere.

## 5.5 Soinuak grabatzea

Grabazioak egin ditzakezu, gehienez 12 minutukoak (memoriaren egoeraren arabera).

Hautatu **“<Berria>”** grabazioa abiarazteko. Amaitzen duenean, sakatu eskuineko funtzio-tekla grabazioa geldiarazteko eta gordetzeko. Soinu-erregistro berriari izena eman diezaiokezu edo mugikorrek proposatutakoa onar dezakezu **OK** sakatuta.

Soinu-erregistro bat hautatzen duzunean, automatikoki entzungo da behin eta berriz. Sakatu **OK** aukeretara sartzeko: Aukera hauek daude: **“Grab. entzun”**, **“Izen berria”** edo **“Ezabatu”**, **“Tonu gisa”** edo **“SMS/MMS tonua”**.

Ohartarazpen-seinale bat keinuka hasten da grabazioa luzera maximora iristeko zorian dagoenean. Grabazioa eteten ez baduzu, gutun-azal gorri batek adieraziko dizu grabazioa luzeegia dela MMS bidez bidaltzeko.



## 5.6 Erloju iratzargailua

Zure telefono mugikorrak erlojua du, alarmak berriz jotzeko funtzioarekin. Hiru alarma programa ditzakezu, eta alarmak berriz joko duen edo ez hauta dezakezu.

Alarmak jotzen duenean, sakatu edozein tekla geldiarazteko (alarmak berriz jotzeko modua aktibatuta ez badago).

### Alarmak berriz jotzea

Alarmak berrizko jotzeko modua aktiba edo desaktiba dezakezu.

Alarmak jotzen duenean eta alarmak berriz jotzeko modua aktibatuta dagoenean:

- Sakatu edozein tekla (eskuineko funtzio-tekla izan ezik), alarma aldi baterako geldiarazteko. Zazpi minutu geroago joko du berriro alarmak.
- Sakatu eskuineko funtzio-tekla alarma geldiarazteko eta berriz ez jotzeko.

Alarmak 9 aldiz berriz jotzen duenean, automatikoki desaktibatzen da alarmak berriz jotzeko modua.

## 5.7 Automatikoki piztea/itzaltzea

Telefonoa ordu jakin batean automatikoki pizteko edo itzaltzeko programa dezakezu. Hartara, telefonoaren bateriaren iraupena luzatu egingo duzu, eta ordu jakin batzuetan telefonoak ez du joko. Gainera, automatikoki berriro piz dezakezu telefonoa.

# 6 Multimedia-bilduma .....



Zure telefono mugikorraren ezaugarriekin lotutako aukerak ditu.

## 6.1 Memoriaren egoera

Memorian erabilgarri duzun lekuaren ehunekoia ikusi ahal izango duzu telefonoan. Zenbait ezaugarri daude memorian: irudiak, soinuak, grabatutako gogorazleak eta ahots-komandoetarako ahots-etiketak, gordetako mezuak, direktorioko eta antolatzaileko sarrerak, jokoak, etab.

'Soinu-albuma' eta 'Irudi-albuma'-en baino ezin dituzu ezabatu soinuak eta irudiak. Erregistro berri bat gordetzean 'Beteta' mezua agertzen denean, item bat ezabatu behar duzu, erregistro berria gehitzeko.

## 6.2 Soinu-bilduma

Antolatu telefono mugikorrean gordetako soinu-erregistroak.

- |                        |  |
|------------------------|--|
| <b>Guztiak ikusi</b>   | • Sartu zure soinu-erregistro guztietara zerrenda bakarrean.     |
| <b>Nere doinuak</b>    | • Sartu deskargatutako soinu-erregistro guztietara.              |
| <b>Babest. doinuak</b> | • Sartu egile-eskubideak babestutako ereduak soinuen zerrendara. |
| <b>Grabaketak</b>      | • Sartu soinu-grabazioen zerrendara.                             |

Hautatu soinu-erregistro bat, eta sakatu **OK**, hurrengoetara sartzeko.

- Nola bidali...** • Bidali hautatutako soinu-erregistroak posta elektronikoko, MMS edo VMS bidez.
- Tonu gisa** • Konfiguratu hautatutako soinua txirrin gisa.
- SMS/MMS tonua** • Konfiguratu hautatutako soinua mezu-txirrin gisa.
- Izen berria** • Aldatu hautatutako soinu-erregistroen izena.
- Ezabatu/Dena ezabatu** • Ezabatu hautatutako soinu-erregistroa ezabatu edo erregistro guztiak batera.

### 6.3 Irudi-bilduma

Bistaratu eta aldatu zure telefono mugikorrean gordetako irudiak.

- <Gehiago?>** • Deskargatu irudi-erregistro berriak.
- Dena ikusi** • Sartu irudi-erregistro guztietara zerrenda bakarrean.
- Nere irudiak** • Sartu telefonoan integratutako kameraz ateratako argazkietara.
- Nere irudiak** • Sartu deskargatu dituzun irudietara.
- Babesturiko irudiak** • Sartu egile-eskubideek babestutako irudi-ereduaren zerrendara.
- Ikurrak** • Sartu deskargatu dituzun ikonoen zerrendara.

Hautatu irudi bat eta sakatu **▼** irudia ikusteko. Sakatu **OK** aukera hauetara sartzeko:

- Nola bidali...** • Bidali hautatutako irudi-erregistroa posta elektronikoko eta MMS bidez.
- Pantaila-fondoa** • Konfiguratu hautatutako irudia pantailaren atzeko plano gisa.
- Irudia aldatu** • Aldatu hautatutako irudia.
  - 'Testua': testua gehitzen dio hautatutako irudiari.
  - 'Grafikak': marko edo ikono bat gehitzen dio hautatutako irudiari.
  - 'Desegin': irudian egindako azken aldaketa ezerezten du, edo berrezarri egiten du.
  - 'Bidali': hautatutako irudia posta elektronikoko edo MMS bidez bidaltzen du.
  - 'Gorde': irudia aplikatu dizkiozun aldaketa guztiekin gordetzen du.
- Rotazioa** • Biratu hautatutako irudia 90 gradu ezkerrera edo eskuinera edo 180 gradu.
- Ikusi** • Ikusi hautatutako erregistroa.
- Ezaugarriak** • Ikusi propietateak (neurria, formatua, bereizmena, etab.).
- Izen berria** • Aldatu hautatutako irudiaren izena.



Egile-eskubideek babestutako irudiak ezin dira bidali

### 6.4 Estekak

Aurrez definitutako sarbide-punturako Interneterako sarbide-puntu bat (IAP, ingelesez) erabiltzeko eska diezazuke zerbitzuen hornitzaileak. Gailua aktibatzean konfiguratu dezakezu sarbide-puntu hori.

## 7 Aisia.....

### 7.1 Jokoak

Adreilu-jokoa

### 7.2 Java

#### 7.2.1 Aplikazioak

- HeliMinator
- Rocket

#### 7.2.2 Konfigurazioa

Sarrera sarera

- Joko eta aplikazioetarako erabilgarri dauden profilen zerrenda. Uneko WAP profilak eta joko eta aplikazioetarako profilak daude zerrenda honetan. Profil bat hautatzeko, zoaz zerrendara, sakatu **OK** eta aukeratu **'Aukera'**.

Hasiera autom.

- Java aplikazioaren exekuzioa automatikoki aktibatzeko/desaktibatze.

## 8 Wap.....

Zure sarearekin hornitutako zerbitzuetara sar zaitezke; hauetara, adibidez: berriak, kirolak, eguraldi-iragarpena, etab.

### 8.1 Hasierako orria

Wap saio bat exekutatzean lehen Wap gunera sartzeko esteka da hori.

### 8.2 Markagailuak

Wap helbideak gorde, izena aldatu eta horietara bizkor sar zaitezke, zerrendaren bidez. Sakatu ezkerreko funtzio-tekla nabigatzen ari zaren bitartean, eta, ondoren, hautatu **'Markadoreak'**.

### 8.3 URL helbidera joan

Sartu Wap helbide bat eta konektatu zuzenean hori hautatzean.

### 8.4 Doikuntzak

Wap gunetara sartzeko, Wap konexio-profil bat konfiguratu behar duzu.

#### 8.4.1 Profila hautatu

Hautatu erabilgarri dagoen profiletako bat; ondoren, definitu horietako bakoitzerako konexio-doikuntzak.

#### 8.4.2 Nabigatzailearen aukerak

Aktibatu edo desaktibatu Wap orriei erantsitako irudiak deskargatzea. **‘Desaktibatu’** hautatzen baduzu, bizkortu egingo da bisitatuko orriak deskargatzeko denbora.

#### 8.4.3 Profilaren izena aldatu

Aldatu hautatutako profilaren izena.

#### 8.4.4 Cachea

Hustu Wap saio batean bisitatutako orriak gordetzen diren telefonoaren memoriako eremu bat.

#### 8.4.5 Sarea

- |                                     |  |
|-------------------------------------|--|
| <b>Hasiera-orri. edizioa</b>        | <ul style="list-style-type: none"><li>• Aldatu hasierako orriaren izena eta helbidea.</li></ul>  |
| <b>Sarrera sarera</b>               | <ul style="list-style-type: none"><li>• Hautatu definitu duzun datu-profiletakoa bat.</li></ul>  |
| <b>Eramailea</b>                    | <ul style="list-style-type: none"><li>• Aukeratu konexio bat exekutatzean hautatutako profilak erabiltzen duen sare-mota.</li></ul>                                    |
| <b>Proxy helbidea/ Proxy portua</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Wap konexio bat exekutatzean, definitu sarbide-atearen helbidea eta ataka-zenbaki bat, hautatutako profila erabilia.</li></ul> |
| <b>Segurtasuna</b>                  | <ul style="list-style-type: none"><li>• Bistaratu instalatutako segurtasun-ziurtagirien zerrenda, saioaren informazioa edo uneko ziurtagiria.</li></ul>                |

### 8.5 Jasotako Push mezuak

Irakurri eta antolatu zuri bidalitako mezuak automatikoki sarean eta/edo operadorean.

Batzuetan, ikur gorri bat “@” bistaratuko da pantailan, Push mezu berri bat jaso duzula jakinarazteko.

### 8.6 Aukerak

Nabigatzean, sakatu ezkerreko funtzio-tekla, aukera hauetara sartzeko:

- |                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>Hasiera-orrialdea</b>     | <ul style="list-style-type: none"><li>• Sartu aurrez definitutako hasierako orrira.</li></ul>   |
| <b>Atzera</b>                | <ul style="list-style-type: none"><li>• Itzuli lehen nabigatzen ibili zaren orrira.</li></ul>   |
| <b>Aurrera</b>               | <ul style="list-style-type: none"><li>• Zoaz nabigatzen ibili zaren hurrengo orrira.</li></ul>  |
| <b>Eguneratu</b>             | <ul style="list-style-type: none"><li>• Kargatu berriro unean bisitatzen ari zaren orria jatorrizko zerbitzaritik.</li></ul>          |
| <b>Hasiera-orr. gisa</b>     | <ul style="list-style-type: none"><li>• Gorde unean bisitatzen ari zaren Wap orria aurrez definitutako hasierako orri gisa.</li></ul> |
| <b>Hautatutakoa sartu...</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Gorde bistaratzen diren eta orrietan integratuta dauden irudiak irudi-bilduman.</li></ul>     |
| <b>Atera</b>                 | <ul style="list-style-type: none"><li>• Amaitu Wap saio bat.</li></ul>  |
| <b>Markadoreak</b>           | <ul style="list-style-type: none"><li>• Gorde esteka hori gogokoenen artean.</li></ul>  |
| <b>URLra joan</b>            | <ul style="list-style-type: none"><li>• Zoaz sarrerako URLra.</li></ul>   |
| <b>Konfigurazioa</b>         | <ul style="list-style-type: none"><li>• Zoaz Wap konfigurazioetara.</li></ul>   |
| <b>Harrera-kutxa</b>         | <ul style="list-style-type: none"><li>• Egiatzatu Push sarrerako ontzia.</li></ul>  |

# 9 Mezuak.....

SMS, MMS eta mezu elektronikoak sortu, bidali, ikusi, editatu eta antola ditzakezu. Datuak eta zerbitzu-eta hedatze-mezuak ere jaso ditzakezu <sup>(1)</sup>.

## 9.1 Mezu bat sortzea

### 9.1.1 Mezu elektroniko berria


Mezu elektronikoak hartzaile bati edo batzuei bidaltzeko aukera duzu, baita eranskin batekin ere; adibidez, JPEG irudi batekin.

**<Kontaktoak gehitu>**

- Hautatu zure mezu elektronikoaren hartzaile(k), betiere direktorioan gordetako kontaktuen helbide elektronikoak sartu badituzu.

**MMS berria**

- Diseinatu zure mezua. Sartu gaia eta testua. Ondoren, sakatu ezkerreko funtzio-tekla, aukera hauetara sartzeko:
  - 'Irudia edo soinua': gehitu soinu edo irudi bat mezu elektronikoari.
  - 'Bidali': bidali hautatutako hartzaileari/hartzaileei.
  - 'Aldatu': diseinatu berriro mezu elektronikoa.

 Irudi (JPEG, GIF o BMP) edo soinu bakarra gehi dezakezu aldi bakoitzean. Mezu elektroniko bat idazten ari zaren bitartean sarrerako dei bati erantzuten badiozu, menua itxi egingo da eta pantaila nagusira itzuliko da esekitzean.

<sup>(1)</sup> Egiaztatu zerbitzu hau erabilgarri dagoela sareko edo Internet zerbitzuko operadorearekin.

### 9.1.2 SMS berria

SMS bat idazteko eta bidaltzeko, hautatu 'SMS'. Ondoren, sartu testua. Direktorioetik hartzaile bat gehitzeko, hautatu '<Hartzailea sartu>'. Bestela, sartu telefono-zenbakia zuzenean. Hautatu 'Soinua sartu', doinu bat eransteko; 'Grafikoa sartu', irudi bat eransteko; 'Hizkuntza', idazteko hizkuntza aldatzeko.

### 9.1.3 MMS berria

'MMS berria' hautatzean, MMSa bidaltzeko kontaktu bat sartzeko eskatuko zaizu lehenengo. Lehendik zeuden kontaktu bat edo batzuk hauta ditzakezu, edo telefono mugikorraren zenbaki berri bat edo helbide elektroniko berri bat sartu.

Ondoren, multimedia gehitzeko eskatuko zaizu ('Irudia sartu'/'Soinua sartu'). Irudi bat hauta dezakezu, testua edo soinua gehitu, mezua bidali edo MMS aukeretara sartu. Erabili ▼ edo ▲, aukera batetik bestera mugitzeko, eta sakatu OK edo ezkerreko funtzio-tekla, menura sartzeko.

**Nuevo MMS**

- Gehitu irudi, testu eta/edo soinu bat.

**Bidali**

- Bidali MMSa hautatutako hartzaileari/hartzaileei.

Aukera hauek dituzu MMS berri bat sortzean:

**Diapoa sartu**

- Gehitu diapositiba berri bat sortu eta diapositiben aurkezpena.

**Gaia editatu**

- Editatu eta aldatu edo sartu mezuaren gaia.

**Hurrengoa**

- Zoaz hurrengo/aurreko diapositibara.

**Ezabatu diapoa**

- Ezabatu hautatutako orrialdea.

- Zirriborro gisa**
  - Mezua zirriborroan gordetzen du. Gerora, editatu, osatu eta bidali egin dezakezu.
- Eredu gisa**
  - Gorde mezua txantilo gisa.
- MMS irudia**
  - Ikusi sortu dituzun diapositiben aurkezpenaren aurrebista.
- Iraupena**
  - Aldatu diapositiben iraupena.

#### 9.1.4 MMS/VMS ahotsa

Pantaila nagusitik, hautatu **'Mezuak'** eta sakatu **'Ahots MMS/VMS berria'** edo hautatu hartzaileak. Ondoren, sortu VMS bat. Zenbaki bat edo batzuetara bidal dezakezu VMS bat aldi bakoitzean. Hiru eratarata erantzun diezaiokezu VMS bati: SMS, MMS eta VMS bidez.

#### 9.1.5 Postala <sup>(1)</sup>

Pantaila nagusitik eta **'Kamara'**, **'rudi-albuma'**, **'Mezuak'** eta **'Mezuak'** funtzioetatik sar zaitezke menu horretara.

## 9.2 Sarrerako ontzia

### 9.2.1 Posta elektronikoa

Postontzira konektatu eta mezu elektronikoen goiburuak (bidaltzailearen eta gaiaren ataleko marrak) deskarga ditzakezu zerbitzaritik. Ondoren, dagozkion mezu elektronikoak berreskura ditzakezu.

### 9.2.2 SMS

SMSen sarrerako ontziak bidalitako eta jasotako mezuak ditu.

Sakatu **OK** edo ezkerreko funtzio-tekla, aukera hauetara sartzeko:

- Ezabatu**
  - Ezabatu aukeratutako mezua.
- SMS edizioa**
  - Editatu, aldatu edo bidali berriro SMS bat norbaiti.
- SMS erantzuna**
  - Erantzun igorleari.
- Spam-era bidali**
  - Bidali hautatutako mezua Spam-en SMS ontzira.
- Gehitu zerrendara**
  - Gehitu bidaltzailearen telefono-zenbakia iragazkia duen zerrendara.
- Artxibo-ra bidali**
  - Gorde mezuak telefonoaren memorian.
- Berriro bidali**
  - Bidali hautatutako mezua.
- Esku askea dei**
  - Deitu mezuaren bidaltzaileari, esku libreko aukerarekin.
- Berriro deitu**
  - Deitu berriro mezuaren bidaltzaileari (operadorearen arabera).
- Zenbakia gorde**
  - Gorde bidaltzailearen zenbakia, mezuari erantsita baldin badago.
- Berreskuratuta**
  - Atera mezuaren barnean dagoen zenbaki bat.
- Doinua gorde**
  - Gorde SMS bidez bidalitako doinua.
- Irudia gorde**
  - Gorde SMSarekin batera bidalitako grafikoa eta/edo animazioa.

<sup>(1)</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

### 9.2.3 MMS

MMSen sarrerako ontzian hauek dituzu: irakurritako eta irakurri gabeko MMS guztiak, jakinarazpenak, eta mezuak entregatzearen eta irakurtzearen txostenak. Mezu bat irakurtzeko, hautatu hori eta sakatu **OK**. Sakatu **OK** edo ezkerreko funtzio-tekla, aukera hauetara sartzeko:

- Mezua erakutsi**
  - Itzuli modu automatikora: diapositiba-aurkezpen jarrai gisa exekututzen da MMSa.
- Berriro bidali**
  - Bidali norbaiti hautatutako MMSa.
- MMS informazioa**
  - Bistaratu hautatutako mezuaren xehetasunak (neurria, datuak, etab.).
- Ezabatu**
  - Ezabatu hautatutako MMSa.

MMS bat ireki ostean, sakatu ezkerreko funtzio-tekla, aukera hauetara sartzeko:

- Mezua erakutsi**
  - Itzuli modu automatikora: diapositiba-aurkezpen jarrai gisa exekututzen da MMSa.
- Aurrekoa, Hurrengoa**
  - Zoaz hurrengo/aurreko diapositibara. ▼ edo ▲ ere saka ditzakezu, MMSa eskuzko moduan ikustean. Kontuan izan MMSak diapositiba bat baino gehiago baditu bakarrik agertuko dela aukera hori.
- Irudia gorde**
  - Bereizi uneko diapositibaren irudia, eta gorde irudi-bilduman.
- Soinua gorde**
  - Uneko diapositibaren soinua bereizteko eta soinu-bilduman gordetzeko.
- Gorde**
  - MMSa ixteko eta aukeren zerrendara itzultzeko.

Jakinarazpenak ez ezabatu MMSa berreskuratu arte. Bestela, ezingo duzu berreskuratu MMSa. Jakinarazpenak automatikoki ezabatzen dira MMS guztia jaso ostean.

## 9.3 Zirriborroa

Mezu bat zirriborro gisa gorde dezakezu eskuz. Zirriborroak **irakurri, editatu, bidali, ezabatu eta horien xehetasunak** ikus ditzakezu.

## 9.4 Txantiloiak

Txantilo gisa gordetako mezu guztiak ditu. Horiek guztiak **irakurri, editatu eta ezaba** ditzakezu.

## 9.5 Irteerako ontzia

Bidalitako edo bidali gabeko mezu guztiak ditu. Mezuak **irakurri, ezabatu, bidali edo birbidal** ditzakezu, edo mezu horien guztien **xehetasunak** ikusi.

Gordetako mezuak **zirriborroetatik** edo **irteerako ontzitik** baino ezin dira bidali.



Zuk EZIN DUZU berreskuratu ezabatu duzun item bat (mezua, jakinarazpena edo txostena izan). Sakatu '**Atzera**', ezabatutakoa bertan behera uzteko.

## 9.6 Doikuntzak

### 9.6.1 Nire hiztegia

Mezuak idazteko erabiltzen den T9 hiztegia hedatzeko aukera duzu. Sakatu '**Berria**', sartu hautatutako hitza eta, gordetzeko, **OK** sakatu besterik ez duzu.

## 9.6.2 SMS

Konfiguratu SMSen doikuntzak.

- SMS zentroa** • Hautatu aurrez definitutako SMS zentro bat.
- Sinadura** • Gehitu sinadura bat mezuaren amaieran.
- Balioetasun-epea** • Hautatu mezuak zenbat denboran gorde behar diren SMS zentroan.
- SMSa gorde** • 'Artxiboa' menura bidalitako mezuak automatikoki gordeko dira.
- Erantzun-bidea** • Transmittitu zure SMS mezuen zentroa, mezuarekin batera.
- Informe de entrega** • SMS bidez jakinaraziko dizu zure SMSa jaso duten ala ez.

## 9.6.3 Posta elektronikoa

- Perfil-izen berria** • Aldatu kontu baten aurrez definitutako izena.
- Perfila aldatu** • Aldatu zure profilaren doikuntzaren konfigurazioa.
- Posta zerbitzaria** • Konfiguratu posta elektronikoaren zerbitzuaren doikuntzak.
- Aurreratua** • Sartu aukera aurreratueta.
- Sarbidea sarera** • Konfiguratu Interneterako konexioa, mezu elektronikoak kontsultatu aurretik.

## 9.6.4 MMS

Jarri harremanetan zure operadorearekin, atal honetan deskribatutako informazioa jasotzeko eta adierazi bezala sartzeko.

## 9.6.5 SMS mezuak hedatzea

Antolatu sarera abonatutako guztiei aldira bidaltzen zaizkien SMS hedapenak jasotzeko modua.



# 10 Doikuntzak.....

Erabil daitezkeen aukerekin (soinuak, ordua eta eguna, segurtasuna, etab.) lotutako doikuntzak aldatu eta telefonoa pertsonaliza dezakezu..

## 10.1 Ordua eta eguna

Ordua eta eguna doitzeko, hautatu ordu-eremua ("**Tokiko ordua**") eta aktibatu udako ordutegia ("**Udako ordut**").

## 10.2 Soinuak <sup>(1)</sup>

Doitu txirrinaren bolumena; hautatu txirrin-tonu bat eta tekla-tonuak; hautatu mezuen txirrina, audio-doikuntzak, animazio-soinuak eta soinu-/bibrazio-alertak.

## 10.3 Segurtasuna

Funtzio honekin, zure telefono mugikorraren eta gordeta dituen datuen segurtasunarekin lotutako funtzioetara sar zaitezke.

### 10.3.1 Kodeak aldatzea

PIN eta PIN2 (Personal Identification Number) kodeak eta deiak debekatzeko kodea alda ditzakezu.

PIN kodea hiru aldiz gaizki idatziz gero, SIM txartela blokeatu egingo da. Desblokeatzeko, eskatu PUK2 kodea operadoreari edo saltzaileari. PUK desblokeatze-kodea hamar aldiz segidan gaizki sartzen bada, SIM txartela blokeatu eta baliogabetu egingo da. Hori gertatuz gero, jarri harremanetan operadorearekin edo saltzailearekin.

### 10.3.2 Markaketa finkoa

Antolatu izen espezifikoen zerrenda bat, "**Markaz. finkoa**" izenekoa, eta murriztu zerrenda horretarako deiak "**Ezinezkoa**." aukera erabiliz.

Horretarako, harpidetuta egon behar da, eta PIN2 kodea behar da.

**Markaz. finkoa**

- PIN2 kodea erabiliz kontsultatu, editatu eta aldatu izen publikoen zerrenda.

**Ezinezkoa**

- 'Publikoa bakarrik' hautatzean, izen publikoen zerrendako erabiltzaileetara baino ezingo da deitu.

### 10.3.3 Deiak murriztea

Funtzio honen bidez, telefonoa dei jakinak egiteko moduan bakarrik defini daiteke. Sarrerako eta/edo irteerako deiei aplikatu dakieke.

Funtzio hori sare bidez erabil daiteke; deiak debekatzeko pasahitz espezifikoa behar da, eta operadoreak berak emango dizu.

### 10.3.4 Konfidentziasuna

Kode bat hautatu, eta, horren bidez, mezuak, direktorioa edo deiak babes ditzakezu, zure telefonoa erabiltzen duen edonork horiek irakurtzerik izan ez dezan.

### 10.3.5 PIN babesa

Telefonoa aktibatzean, telefonoa pizteko PIN kodea sartzeko eskatuko dizu.

Ezin duzu zure PIN kodea aldatu, baldin eta aukera hau desaktibatuta badago.

<sup>(1)</sup> OT-C550/560

## 10.4 Profilak <sup>(1)</sup>

Profil bat aurrez definitutako doikuntza-multzo bat da, eta telefonoa zure beharretara egokitzeko aukera ematen du.

## 10.5 Autonomia

Energia gehien kontsumitzen duten funtzioetarako zuzeneko sarbidea ematen dizu aukera honek, eta bateriaren iraupena luzatzen laguntzen dizu, doikuntza bakoitza berehala kargatzen baita. Autonomia-menuko funtzio gehienak desaktibatzen badituzu, luzatu egingo da bateriaren iraupena.

## 10.6 Bistaratzea<sup>(1)</sup>

### 10.6.1 Argi-intentsitatea

Argi-intentsitatearen zenbait maila dituzu aukeran.

### 10.6.2 Pantailaren hondoa

Aktibatu edo desaktibatu pantaila nagusiaren hondoa. Pantailaren hondoa ez da bistaritzen, munduko erlojuaren aukera aktibatuta badago.

### 10.6.3 Pantaila-babesa

Aukera hori aktibatuta, pantaila-babesa bistaritzen da hasierako pantailaren atzetik. Hautatu irudi edo animazio bat pantaila-babes gisa.

### 10.6.4 Kontrastea

Zenbait kontraste-maila dituzu aukeran.

### 10.6.5 Argia

Argia aktibatzen da sarrerako deiak edo mezuak badaude edo menuak ikusten ari bazara.

## 10.7 Sarea

Jarri harremanetan telefono-operadorearekin sareko GPRSaren erabilga-rritasunari eta harpidetzei buruzko informazioa eskatzeko. Baliteke operadoreak emandako GPRS doikuntzekin konfiguratu behar izatea telefonoa.

## 10.8 Zuzeneko sarbideak <sup>(1)</sup>

Maizen erabiltzen dituzun ezaugarrietarako eta aukerretarako zuzeneko sarbideak konfiguratu ditzakezu.

### Ahots-komandoa

Lotu funtzio jakin baterako zuzeneko sarbidea ahots-etiketa batekin. Ahots-komando bat eslei diezaiekezu zuzeneko sarbideko teklekin aktibatuta funtzio gehienei.

## 10.9 Hizkuntza

Hautatu hizkuntza bat menuko testu guztientzat.

<sup>(1)</sup> OT-C550/560.

<sup>(1)</sup> OT-C550/560.








# 11 Kamera

Telefonoak kamera digital bat du integratuta. Argazkiak atera ditzakezu, eta, gero, telefonoan gorde edo ordenagailura transferitu, pantaila-hondo gisa erabili edo zure lagunei bidal diezazkiekezu MMS bidez edo posta elektronikoz.

## 11.1 Erabilera

Sakatu  tekla eta kameraren aplikazioa automatikoki exekutatu da.

Hona hemen kameraren moduan teklei dagozkien funtzioak:

	Handitu/txikitu
	Esposizioaren konpentsazioa handitu/txikitu
 edo 	Argazkia atera
	Kameraren modutik irten eta hasierako pantailara itzuli
	Kliskagailua automatikoa aktibatu/desaktibatu
	Argazki-segida modua aktibatu/desaktibatu
	Irudi-bereizmenak aldatu


Ezkerreko funtzio-tekla Menuko aukeretara sartu

Eskuineko funtzio-tekla Aurreko pantailara itzuli

Argazkia ateratzeko, sakatu  tekla. Argazkiak automatikoki gordeko dira.

## Kliskagailu automatikoa erabiltzea

Kameraren moduan, sakatu  .


Doitu irudia, eta,  sakatzean, 10 segundoko atzerako kontaketa jarriko da martxan (balio hori ezin da aldatu).

Sakatu ezkerreko funtzio-tekla tenporizadorea geldiarazteko eta aurrebistaren modura itzultzeko.

Argazkia atera baino hiru segundo lehenago soinu bat egiten du; gero, argazkia atera ondoren, berriz entzuten da.

## 11.2 Kameraren menua

### 11.2.1 Nire irudiak

Argazki bat atera eta gordetzean, erregistroa **“Nire irudiak”** karpetan gordeko da. Erabili gora eta behera nabigazio-teklak zerrenda ikusteko. Irudia pantaila osoan ikusteko, sakatu  . Sakatu eskuineko funtzio-tekla aukera hauetara sartzeko:

<b>Nola bidali...</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Irudi bat beste gailu batera transferitzeko.</li></ul>
<b>Pantaila-fondoa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Hautatutako argazkia pantailaren atzeko plano gisa doitzeko.</li></ul>
<b>Irudia aldatu</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Irudiak editatzeko programa exekutatzeko.</li></ul>
<b>Ezaugarriak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Hautatutako irudiaren propietateak ikusteko: izena, tamaina (KB-etan), bereizmena eta formatua.</li></ul>
<b>Rotazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Irudi bat birarazteko.</li></ul>
<b>Ikusi</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Irudia pantaila osoan bistaratzeko.</li></ul>
<b>Ikusi</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Irudi-erregistro baten izena aldatzeko.</li></ul>
<b>Dena ezabatu</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>“Nire irudiak”</b> karpetako erregistro guztiak ezabatzeko.</li></ul>
<b>Ezabatu</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>“Nire irudiak”</b> karpetan hautatutako erregistroa bakarrik ezabatzeko.</li></ul>

### 11.2.2 Diapositiben aurkezpena

Exekutatu **“Nere irudiak”** karpetako diapositiben aurkezpen bat.

Diapositiben aurkezpenean, argazki bakoitza une batez bistaratuko da pantailan.

Sakatu edozein tekla diapositiben aurkezpena amaitzeko eta aurreko pantailara itzultzeko.

### 11.2.3 Kliskatze jarraitua

Bederatzi argazki atera ditzakezu segidan, **OK** edo **↵** tekla behin sakatuta.

Kontuan izan, argazkiak jarraian ateratzeko aukera erabiltzeko, pantailaren tamainaren arabera doitu behar dela bereizmena.

Kamerak irudiak prozesatzeari uztean, irudi txiki gisa bistaraten dira pantailan. Beraz, ezkerreko funtzio-tekla saka dezakezu, aukera hauetara sartzeko:

- |                       |   |
|-----------------------|---|
| <b>Gorde</b>          | <ul style="list-style-type: none"><li>Argazkiak automatikoki gordetzeko.</li></ul>                                |
| <b>Nola bidali...</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>Hautatutako argazkia MMS bidez edo posta elektronikoz bidaltzeko.</li></ul> |
| <b>Ezabatu</b>        | <ul style="list-style-type: none"><li>Hautatutako irudia ezabatzeko.</li></ul>                                    |
| <b>Dena ezabatu</b>   | <ul style="list-style-type: none"><li>Taldeko irudi guztiak ezabatzeko.</li></ul>                                 |

Taldeko irudi bat gorde edo ezabatzean, irudi txikien ikuspegitik desagertu eta **“Nere irudiak”** karpetan gordetzen da.

### 11.2.4 Argazkien orientazioa

Hautatu nola ikusiko diren argazkiak argazki-albumean, behar bezala ikus daitezten.

### 11.2.5 Markoak

Marko apaingarriak dituzten argazkiak atera ditzakezu. Marko estandarren karpetan dauden markoak, fabrian bertan kargatutakoak dira.

### 11.2.6 Kolorearen modua

Ikusizko zenbait efektu aplikatu diezazkiekezu zure irudiei.

### 11.2.7 Gaueko modua

Aukera hau aktibatzean, argazkiak atera ditzakezu argi gutxi dagoenean.

### 11.2.8 Tenporizadorea

Tenporizadorea erabiliz atera dezakezu argazki bat, zu zeu argazkian ateratzeko aukera izateko. Kliskagailu automatikoa erabiltzeko, hautatu **“Aktibatu”** menu horretan, itzuli bisorearen modura, fokatu irudia eta, gero, sakatu **OK**.

### 11.2.9 Distira

Doitu zure telefono mugikorreko pantailaren esposizioaren konpentsazioa.

## 11.3 Doikuntzak

### 11.3.1 Bereizmena

Hautatu zer tamainako argazkiak aterako dituzun. Hauek dira aukerak:

- VGA (640 x 480)
- QVGA (320 x 240)
- Pantailaren tamaina – Pantaila-hondoa (128 x 160)

### 11.3.2 Argazkiaren kalitatea

Kamerarekin ateratako argazkien kalitatea doi dezakezu: txikia, ertaina, altua.

### 11.3.3 Soinuak doitzea

Alerta-soinuak eta taparen soinuak doitzeko.

### 11.3.4 Doikuntzak leheneratzea

Kameran aurrez definitutako balioak ezartzeko.

## 11.4 Laguntza

Telefono mugikorrarekin argazkiak nola atera erakutsiko dizu, pantailatik.

# 12 Direktorioa.....

SIM txarteleko eta/edo telefonoaren memoriako aurkibidean telefono-zenbakiak eta izenak gorde ditzakezu. Izen berriak sartzean, hautatutako aurkibidean bakarrik gordeko dira.

## 12.1 Kontaktuen zerrenda

Kontaktuen izenak, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoak antola ditzakezu. Gainera, ▼ sakatuta, hasierako pantailatik izenen zerrendara sar zaitezke zuzenean.

Sakatu bistaratu nahi duzun izenaren lehen letra. Zerrendan letra horrekin hasten den lehen kontaktua hautatuko da.

Beste aukera bat ere badago: #\_a tekla sakatu, bilatzen ari zaren kontaktuaren izenaren lehen letra sartu eta OK sakatu zuzenean izen horretara joateko.

Aurkibideko "<Bilatu>" ere hauta dezakezu.

Hautatu "Azaldu" aurkibidean gordetako zenbakien edo erregistroen zerrendara joateko. "<Berria>" ere hauta dezakezu, erregistro berri bat sortzeko.

Aurkibideetan gordetako erregistroak irudiekin eta/edo soinuekin pertsonaliza daitezke.

Funtzio hori telefonoko aurkibidean bakarrik erabil daiteke.

Hautatu kontaktu bat eta sakatu OK edo ezkerreko funtzio-tekla. Kontaktu horrek deitzen dizunean, telefonoak kontaktu horri lotutako irudia bistaratuko du eta/edo haren doinua entzungo da.

## 12.2 Guztia ezabatzea

Erregistro guztiak ezaba ditzakezu aldi berean. Aukera honek telefonoko kontaktuen kasuan bakarrik balio du; ez du balio SIM memoriako kontaktuen kasuan.

## 12.3 Direktorioa hautatzea

Aukera honen bidez, aurkibidea hauta dezakezu (SIM edo telefonoa). Sakatu ▼ edo ▲ aurkibidea hautatzeko. Hartara, hautatutako kontaktuak memoria batetik bestera kopia daitezke **“SIM txartelan kop.”** edo **“Tfnoan kopia”** aukerak erabilia. Zure telefonoak kontaktuen zerrenda bakarra du, eta ez du bistaratuko beste zerrendako ezer.

## 12.4 Egoera

Kontaktuen zerrendetan guztira zenbat erregistro dauden gordeta esaten du, baita zenbat gehiago gorde ditzakezun ere.

## 12.5 Kopiatzea

SIM txarteleko edukia kopia dezakezu telefonoan. Telefonoa lehen aldiz piztean SIMeko aurkibidea automatikoki kopiatzeko aukerari ezetz esaten badiozu, eskuz egin dezakezu aukera honen bidez.

Aukera hau bitan hautatzen baduzu, izenak bikoiztu egingo dira.

## 12.6 Kontaktua eranstea

### 12.6.1 SIMeko zerrendan erregistro bat eranstea

Hautatu zerrendan **“<Osatu>”** aukera, idatzi izena eta zenbakia, hautatu zenbaki-mota (telefonoa, faxa edo datuak eta sakatu **OK**, erregistroa aurkibidean sartzeko.

Zenbaki batek gehienez 40 digitu izan ditzake (SIM txartelaren arabera). Nazioarteko aurrezenbakia eta herrialdeko kodea sartuz gero, zenbaki horretara edozein tokitatik deitu dezakezu.

Hautatu SIMeko kontaktu bat, eta sakatu **OK**, aukera hauetara sartzeko:

### 12.6.2 Telefonoko zerrendan erregistroak eranstea

Hautatu zerrendan **“<Osatu>”** aukera, idatzi izena (alfabeto latindarreko 20 karaktere gehienez), eta, ondoren, hautatu zenbaki-mota. Zenbakizko eremuetan 40 digitu eta **“+”** ikurra sar daitezke, eta, eremu alfanumerikoetan (posta elektronikoa eta oharrak), alfabeto latindarreko 50 karaktere. Erregistro bakoitzak zenbakizko bost eremu izan ditzake gehienez.

Hautatu telefonoko zerrendako kontaktu bat, eta sakatu **OK**, aukera hauetara sartzeko:

### 12.6.3 Kontaktuei irudia eta soinua eranstea

Telefonoko zerrendan gordetako erregistroak irudiekin eta/edo soinuekin pertsonaliza daitezke.

Hautatu erregistro bat eta sakatu **OK** edo **“Aukerak”** ezkerreko funtzio-tekla. Zerrendan, hautatu **“Irudia aukeratu”** irudi-bildumako irudi bat eransteko eta **“Doinu-aukera”** txirrinen zerrenda irekitzeko eta doinu bat eransteko.

# 13 Deiei buruzko informazioa.....

## 13.1 Deien kontagailua

Deien kostua eta iraupena jakin ditzakezu. Hemen aipatzen diren aukera gehienak erabiltzeko, harpidetu egin beharra dago.

### 13.1.1 Datu-kontagailua

GPRS kontagailuaren bidez GPRS saioetan jasotako datu-kantitatea kontrola daitezke. Aukera hau erabiltzeko harpidetu egin behar duzu, eta sarearen araberakoa da.

### 13.1.2 GSM kontagailua

Aukera honen bidez, sarrerako eta irteerako GSM dei guztiak araka ditzakezu. Kontuan izan GSM deien kontagailuak ez dituela wap konexioak barne hartzen.

## 13.2 Deien doikuntzak

Deiekin lotutako aukerak doi ditzakezu: deiak desbideratzea, deia zain uztea, eta abar.

### 13.2.1 Deia zain

Hautatu **“Aktibatu”** edo **“Desaktibatu”**, eseki ondoren deia zain uztea eta/edo kostua sistematikoki bistaratzeko edo ez bistaratzeko.

### 13.2.2 Deia zain

GSM deien kasuan

Dei guztiak, Ahots-deiak, Fax-deiak eta Dei-datuak kasuetan aplikatzen da.

GPRS deien kasuan

**“Aktibatu”** edo **“Desaktibatu”** hautatu, GPRS konexio batean sarrerako ahots-deiak zain uzteko edo ez uzteko.

### 13.2.3 Deien adierazlea

Solaskideari zenbakia bistaratzeko edo ez bistaratzeko: **“Zbkia azaldu”** edo **“Zenbakia kendu”**.

### 13.2.4 Deiak desbideratzea

Sarrerako deiak postontzi batera edo zenbaki batera (aurkibidean dagoena edo ez dagoena) desbidera ditzakezu, eta funtzio hau aukera hauei aplika diezaiekezu: **Dei-datuak**, **Ahots-deiak** eta **Fax-deiak**.

**Baldintzarik gabe**

- Desbideratu sarrerako dei guztiak.

**Balitzkoa**

- Hautatu sarrerako deiak noiz desbideratu nahi dituzun: erantzuten ez duzunean, saretik kanpo zaudenean edo zure linea okupatuta dagoenean.

**Egoera**

- Bistaratu desbideratutako dei guztien egoera.

### 13.2.5 Postontziak <sup>(1)</sup>

Idatzi ahots-postontziaren zenbakiak (SIM txartelean ez badaude). Kasu batzuetan, agian bi zenbaki sartu beharko dituzu: bat postontziko mezuak entzuteko eta bestea deiak desbideratzeko.

<sup>(1)</sup> Informazio gehiago nahi baduzu, jarri harremanetan operadorearekin.

### 13.2.6 IP aurrezenbakia

Doitu operadoreak emandako aurrezenbakia (10 digitura arteko zenbakia gorde daiteke), IP deiak egiteko.

### 13.2.7 Automatikoki berriz markatzea

Deitzen ari zaren pertsona hitz egiten ari bada eta aukera hau hautatzen baduzu, automatikoki markatuko du berriro zenbakia, solaskideak deiari erantzun arte (gehienez 10 saiakera egiten ditu telefonoak).

## 13.3 Dei-zerrenda

Aukera honetan sarrerak eta irteerako deien zerrenda dago; automatikoki deitzen zenbat saiakera egin dituen adierazten du, eta deiei buruzko xehetasunak ematen ditu.

- |                       |  |
|-----------------------|--|
| <b>Berriro ezarri</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Zerrenda berehala berrezartzen du eta zerrendetako dei guztiak ezabatzen ditu.</li></ul> |
| <b>Galdutakoak</b>    | <ul style="list-style-type: none"><li>• Erantzun gabeko deien telefono-zenbakien zerrenda.</li></ul>                             |
| <b>Jasotakoak</b>     | <ul style="list-style-type: none"><li>• Jasotako deien telefono-zenbakien zerrenda.</li></ul>                                    |
| <b>Egindakoak</b>     | <ul style="list-style-type: none"><li>• Egindako deien telefono-zenbakien zerrenda.</li></ul>                                    |

# 14 Agenda<sup>(1)</sup>



Antolatzailean gertaerak sortu, gorde eta antola ditzakezu. Antolatzailearen alerta aktibatuta dagoenean, txirrin batek edo grabatutako soinu batek jakinaraziko dizu gertaeraren garaia iritsi dela.

Antolatzaileak mugikorren memoria partekatzen du beste funtzio batzuekin (aurkibidea, irudi-bilduma, soinuak, eta abar). Mesedez, egiaztatu telefonoak memorian leku librea duela.

## 14.1 Gertaera berri bat sortzea

Hautatu “<Berria>” aukera “Gertaerak” atalean, eta, ondoren, sortu nahi duzun gertaera (hitzordua, zeregina, oporrak).

Idatzi ordua eta gertaeraren hasiera/amaiera data eta jarri izena.

Doitu gogorazlea eta maiztasuna: alertak hautatutako orduan aktibatuko dira.



Gogorazleak hitzorduen eta zereginen kasuan bakarrik funtzionatzen du. Ordu-eremua aldatzean eguneratu egiten dira.

## 14.2 Aurreko gertaerak ezabatzea

Amaitutako gertaerak ezaba ditzakezu. Idatzi hasierako data eta sakatu **OK** bitan, ordura arteko gertaera guztiak ezabatzeko.

Antolatzailean programatutako gertaera guztiak ezabatzeko, idatzi hasierako data gisa hemendik urte batzuetarako data (adibidez, 2010eko abenduaren 31); hartara, data horren aurreko gertaera guztiak ezabatu egingo dira.

<sup>(1)</sup> OT-C630/635.



### 14.3 Gertaerak antolatzea

Hautatu zerrendako gertaera eta sakatu **OK** edo ezkerreko funtzio-tekla, aukera hauek bistaratzeko:

- |                      |   |
|----------------------|---|
| <b>Ezabatu</b>       | <ul style="list-style-type: none"><li>• Ezabatu aukeratutako gertaera.</li></ul>                                |
| <b>Aldatu</b>        | <ul style="list-style-type: none"><li>• Aldatu aukeratutako gertaera.</li></ul>                                 |
| <b>Soinua aldatu</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Aldatu hautatutako gertaeraren alarma-motari dagokion doinua.</li></ul> |

Aldizkako gertaera bat aldatzen bada, gertaera horri dagozkion guztiak aldatuko dira.

### 14.4 Gertaeren ikuspegia

Zure antolatzailean gordetako gertaerak hiru modutara ikus daitezke: **“Egunerokoa”**, **“Astero ikusi”** eta **“Hileroko bista”**. Hautatu ikuspegi bat eta sakatu ezkerreko funtzio-tekla; ondoren, sakatu ▼ edo ▲ aurreko edo hurrengo eguna, astea edo hilabetea bistaratzeko.

## 15 Zuzeneko sarbideak <sup>(1)</sup>

Maizen erabiltzen dituzun ezaugarrietarako eta aukeretarako zuzeneko sarbideak konfigura ditzakezu.

### Ahots-komandoa

Lotu funtzio jakin baterako zuzeneko sarbidea ahots-etiketa batekin. Ahots-komando bat eslei diezaiekezu zuzeneko sarbideko teklekin aktibatuta funtzio gehienei.

<sup>(1)</sup> OT-C630/635.

# 16 Profilak <sup>(1)</sup>

## 16.1 Profilak

Profil bat aurrez definitutako doikuntza-multzo bat da, eta telefonoa zure beharretara egokitzeko aukera ematen du.

## 16.2 Soinuak

Doitu txirrinaren bolumena; hautatu txirrin-tonu bat eta tekla-tonuak; hautatu mezuen txirrina, audio-doikuntzak, animazio-soinuak eta soinu-/bibrazio-alertak.

## 16.3 Bistaratzeara

### 16.3.1 Argi-intentsitatea

Argi-intentsitatearen zenbait maila dituzu aukeran.

### 16.3.2 Pantailaren hondoa

Aktibatu edo desaktibatu pantaila nagusiaren hondoa. Pantailaren hondoa ez da bistaratzeko, munduko erlojuaren aukera aktibatuta badago.

### 16.3.3 Pantaila-babesa

Aukera hori aktibatuta, pantaila-babesa bistaratzeko da hasierako pantailaren atzetik. Hautatu irudi edo animazio bat pantaila-babes gisa.

### 16.3.4 Kontrastea

Zenbait kontraste-maila dituzu aukeran.

### 16.3.5 Atzeko argia

Argia aktibatzen da sarrerako deiak edo mezuak badaude edo menuak ikusten ari bazara.

<sup>(1)</sup> OT-C630/635.

# 17 Karaktereen taula .....

Modu arrunta erabiliz hitz bat sartzeko, sakatu behin eta berriro hitzaren letrei dagozkien teklak, letra egokia bistaratu arte.

Tekla	Letra larriak	Letra xeheak
1	. , - ? ! ' @ : 1	. , - ? ! ' @ : 1
2	A B C 2 Æ Å Æ Ç	a b c 2 ã ä å æ ç
3	D E F 3 È É Ê Ë Ì	d e f 3 è é ê ë ì
4	G H I 4 Ğ Ğ Î Ï	g h i 4 ğ ğ î ï
5	J K L 5 Ķ Ķ Ļ Ļ	j k l 5 ķ ķ ļ ļ
6	M N O 6 Ñ Ñ Ò Ò Ø	m n o 6 ñ ñ ò ò ø
7	P Q R S 7 Ŗ Ŗ Š Š	p q r s 7 ř ř š š
8	T U V 8 Ţ Ţ Û Û Ü	t u v 8 ț ț û û ü
9	W X Y Z 9 Ý Ý Ž Ž Ž	w x y z 9 ý ý ž ž ž
	hauen artean aldatzen da: T9/Multitap/123 (labur sakatuta) Luze sakatuta: "0" zenbakia idazteko	
	Letra larria edo xehea ordena honetan aldatzeko: Ab/AB/ab (labur sakatuta) Sinboloen taulara joateko (luze sakatuta)	
	Aktibatutako hitza onartzeko eta/edo tartea sartzeko (labur sakatuta) Hizkuntzen zerrendara joateko (luze sakatuta)	

Taula hau informazio hutsa da; izan ere, baliteke aldaketak edukitzea hizkun-tzaren eta produktuaren modeloaren arabera.

Idazteko modu prediktiboarekin, mezuak azkarrago idatz ditzakezu, tekla bat behin eta berriro sakatu gabe.

Idatzi nahi duzun letrari dagokion tekla behin bakarrik sakatu, eta telefonoak hiztegiko hitz arruntenak proposatuko dizkizu.

Letrak idatzi ahala, hitza aldatzen joan daiteke. Ez kasurik egin pantailan azaltzen denari, hitza osorik idatzi arte. Proposamena onartzeko, sakatu tekla.

Azken hitza zuzena ez bada, sakatu tekla, aukerako beste hitzak ikusteko. Idatzi nahi duzun hitza zerrendan ez badago, idatz ezazu modu arrunta erabiliz (ABC).

## Ikurren barra

Luze sakatu tekla, ikurren barra ikusteko.

Sakatu tekla, ezkerreko joateko.

Sakatu tekla, eskuinera joateko.

Sakatu ezkerreko funtzio-tekla, ikurra onartu eta sartzeko.

	1	2	3	4	5	6	7
A	@	;	:	,	.	!	?
B	(	)	?	i	ı	+	=
C	-	*	<	>	\	~	“
D	⓪	#	§		¥	£	\$
E	€	฿	%	&	_	/	^
F	{	}	[	]	/	/	/

# 18 Telefonoaren bermea .....

Zorionak eman nahi dizkizugu telefono hau hautatzeagatik, eta egindako aukerarekin gustura egotea espero dugu. Erosi duzun gailua bermatuta dago, 1999/44/EE Europako Batasunaren Zuzentarauaren arabera eta, bereziki, 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 legearen arabera. Bi (2) urtez –ordainagirian azaltzen den erosketa-datatik kontatzen hasita– izan ditzakeen fabrikazio-akatsen dagokien bermea, osagai kontsumigarriak izan ezik, adibidez, bateriari (osagai kontsumigarrien bermea sei (6) hilekoa da). Berme honen arabera, izandako akats guztien berri eman behar diozu saltzaileari (edo mantentze-lanetarako zentro teknikoari; horien zerrenda web gunean dator: [www.tctmobile.com](http://www.tctmobile.com)) atzerapenik gabe, eta bermearen ziurtagiria behar bezala beteta eta/edo erosketaren faktura erakutsi behar diozu. Hor datu hauek argi eta garbi adieraziko dira: izena, modeloa, IMEI zenbakia, data eta saltzailea. Berme hau ez da aplikatuko arrazoi hauengatik sortutako akats edo kalteengatik:

- 1) erabiltzeko edo instalatzeko argibideak ez betetzea,
- 2) erabiltzailearen eremu geografikoan indarrean dauden arau teknikoak eta segurtasun-arauak ez betetzea,
- 3) energia-iturriak eta instalazio elektriko orokorra behar bezala ez zaintzea
- 4) mugikorra dagoen ibilgailuak istripua izan badu eta lapurreta egin badute, baita bandalismoa, kolpeak, erorketak, erabilera txarra, tximistak, suteak, hezetasuna, korrosioa, likidoak sartzea edo babesik ez izatea ere,
- 5) T&A Mobile Phones Limited-ek edo haren filialek emandakoak ez diren edo gomendatzen ez dituzten ekipoetan sartzea materiala, baldin eta idatziz adostuta ez badago,
- 6) aldaketak egitea, produktua irekitzea edo T&A Mobile Phones Limited-ek edo haren filialek baimendutakoak ez diren pertsonen edo baimendu gabeko mantentze-lanen zentroek egindako konponketak,
- 7) materiala fabrikatutako helbururako ez beste helburu baterako erabiltzea,
- 8) ohiko higadura,
- 9) kanpoko elementuek eragindako funtzionamendu okerra (adibidez: beste ekipo batzuk eragindako perturbazioak, korrante elektrikoaren tentsioaren eta/edo telefono-lineen aldaketak).

- 10) araudiaren bilakaeraren ondorioz materialean egindako aldaketak edo egokitzapenak, nahitaezkoak izan arren,
- 11) produktuaren softwarea eguneratu behar izatea, sare zelularren parametroen aldaketak direla eta,
- 12) T&A Mobile Phones Limited-ek eta haren filialek produktuetan eguneratzeak egiteko eskubidea dute. Ez daude beharturik lehendik saldutako produktuetan aldaketa horiek egitera eta ezingo dira arrazoi horrengatik produktuak itzuli.
- 13) hedapen txarrarengatik sortutako konexio-akatsak edo operadoreen irritati-sarearen estaldura faltagatik sortutakoak.

Berme honetatik kanpo daude kendu edo aldatu diren markak eta serie-zenbakiak dituzten telefonoak edo osagarriak, baita etiketa askatuta edo hondatuta duten telefonoak ere.

Arestian zehaztutako xedapenek soilik osatzen dute fabrikatzailearen aurka aurkezteko errekurtsio bakarra telefonoak edo osagarriek akatsen bat dutenean; berme honek beste berme esplizitu edo implizitu oro baztertzeko dituen erabilizailearen herrialdean indarrean dagoen legezko bermea izan ezik.

T&A Mobile Phones Limited-ek edo haren filialek ordezkaritza komertziala duten herrialdeetan gauza daiteke bermea.

Erreklamazioak egiteko jarri harremanetan bezeroen arreta-zerbitzuarekin (902 113 119). Posta bidez ere egin dezakezu:

T&A Mobile Phones

Av. De Bruselas, 5

28109Alcobendas (Madril)

**BERME-ZIURTAGIRIA**

**Modeloa:**.....

**Izena:**.....


**IMEI zenbakia:**.....

**Erosketa-data:**.....


Ekipo honen bermea izateko, ezinbestekoa da dokumentu hau behar bezala beteta aurkeztea.

Baldin eta frogatzen bada egindako aldaketak egokiak ez direla, eta 6 hilabeteren barruan akatsak berriro nabarmenak badira, ekipo akastunaren ordezkari berdinak dituen ekipo berri bat eman diezazuten eska dezakezu edo, bestela, erositakoan ordaindutako dirua itzul diezazuten.


## 19 Osagarriak <sup>(1)</sup> .....



Bateria  
BC 5000023 <sup>(2)</sup>  
BC 5000157 <sup>(3)</sup>



Esku libreko ekipo eramangarria  
M13



Kargagailua  
C55



Erabili telefono mugikorra modeloarekin bat datozen Alcateleko bateriekin, kargagailuekin eta osagarrieekin.


<sup>(1)</sup> Izakinen arabera.

<sup>(2)</sup> OT-C550/560.

<sup>(3)</sup> OT-C630/635.


## 20 Arazoak eta irtenbideak.....

Laguntza teknikoko zerbitzuarekin harremanetan jarri aurretik, gomendio hauei begiratzea gomendatzen dizugu:


- Telefonoaren prestazioak ezin hobekak izan daitezzen, telefonoa noizean behin itzaltzea gomendatzen dizugu.
- Behar bezala funtziona dezan, bateria erabat kargatzea gomendatzen dizugu (  )
- Saiatu telefonoaren memorian datu asko ez gordetzen, prestazio-aukerak murrizteko aukera baitago.

Egiaztatu puntu hauek:

### Telefono mugikorra ez da pizten

- Sakatu  tekla pantaila piztu arte
- Egiaztatu bateriaren karga
- Egiaztatu bateriaren kontaktuak, atera eta sartu berriz bateria, eta piztu berriz telefonoa

### Telefonoa desaktibatuta geratu da duela zenbait minutu

- Sakatu  tekla.
- Kendu bateria, sartu berriro eta piztu telefonoa berriz

### Pantaila ez da argi ikusten

- Garbitu pantaila
- Erabili telefonoa gomendatutako erabilera-baldintzen arabera

### Telefono mugikorra bakarrik itzaltzen da

- Egiaztatu telefono mugikorra erabiltzen ez duzunean teklatura blokeatuta dagoela
- Egiaztatu bateriaren karga
- Egiaztatu "Autom. itzali." Funtzioa ez dagoela aktibatuta (ikus 31. orrialdean)

### **Mugikorra ez da behar bezala kargatzen**

- Egiaztatu bateria ez dagoela erabat deskargatuta. Baliteke kargaren ikurrak zenbait minutu behar izatea azaltzeko eta txistu arin bat egitea.
- Egiaztatu kondizio normaletan kargatzen dela (0 °C + 40 °C bitartean)
- Egiaztatu bateria sartuta dagoela. Kargagailua konektatu aurretik sartu behar da.
- Egiaztatu Alcatelen kargagailua eta bateria erabiltzen ari zarela
- Atzerrian, egiaztatu korrante-hartuneen bateragarritasuna


### **Telefono mugikorra ez dago sare batera konektatuta**

- Saiatu beste toki batean konektatzen
- Egiaztatu sarearen estaldura operadorearekin
- Egiaztatu SIM txartelaren kalitatea operadorearekin
- Saiatu sarea eskuz hautatzen (ikus 50. orrialdean)
- Saiatu berriz, gero, sareak gainkarga baldin badu

### **SIM txartelaren errorea**

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela (ikus 14. orrialdea).
- Galdetu operadoreari zure SIM txartela bateragarria den 3 V-ekin, lehengo 5 V-eko SIM txartelak ezin baitaitezke erabili.
- Ikusi SIM txartelaren txipa hondatuta edo marratuta dagoen

### **Ezin da deirik egin**

- Egiaztatu markatu nahi duzun zenbakia markatu duzula eta  tekla sakatu duzula.
- Nazioarteko deientzat, egiaztatu herrialdeko/eremuko kodeak
- Egiaztatu telefonoa sare batera konektatuta dagoela eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela
- Egiaztatu harpidetza operadorearekin (saldoa, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez duzula irteerako deirik debekatu (ikus 48. orrialdean)


### **Ezin da deirik jaso**

- Egiaztatu telefono mugikorra piztuta dagoela eta sare bati konektatuta dagoela (sareak gainkarga du edo ezin da erabili)
- Egiaztatu harpidetza operadorearekin (saldoa, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez duzula irteerako deirik desbideratu (ikus 60. orrialdean)
- Egiaztatu ez dituzula sarrerako dei jakin batzuk debekatu

### **Solaskidearen izena ez da azaltzen deia jasotzean**

- Egiaztatu operadorearen zerbitzu horretara harpidetuta zaudela
- Solaskideak ez du bere zenbakia transmititzen

### **Deien audio-kalitatea ez da onena**

- Dei bat egitean, bolumena ▼ eta ▲ teklen bidez doi dezakezu.
- Kontrolatu  sareko seinalearen ikonoa

### **Ezin ditut eskuliburuan azaltzen diren funtzioak erabili**

- Egiaztatu badagokizula zerbitzu hori operadoreari ordaintzen diozunaren arabera
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela Alcatelen osagarriren bat behar

### **Ezin dut aurkibideko zenbakirik markatu**

- Egiaztatu erregistroaren zenbakia ongi gorde duzula
- Egiaztatu, atzerrira deitzen baduzu, herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula

### **Ezin dut erregistrorik sortu aurkibidean**

- Egiaztatu aurkibidea ez dagoela beteta. Ezabatu erregistro batzuk edo gorde telefonoaren direktorioetan

### **Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian**

- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

### **Ezin naiz ahots-postontzira sartu**

- Egiaztatu operadoreari dagokio ahots-postontziaren zenbakia behar bezala sartuta dagoela **"Dei-informazioa/Ahots-buzoia"** aukeran.
- Saiatu berriz gero, sarea okupatuta bada

### **Ezin dut mezurik bidali, ez jaso**

- Egiaztatu telefonoak memorian leku librea duela. Agian beteta dago eta mezu batzuk ezabatu egin beharko dituzu
- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.
- Galdetu operadoreari zerbitzari-zentroaren zenbakia
- Saiatu berriz gero, zerbitzari-zentroa beteta egon liteke

### **<<-> ikonoa bistaratzen da**

- Sarearen estaldura-eremutik kanpo zaude

### **Okerreko 3 PIN kode sartu ditut**

- Jarri harremanetan operadorearekin desblokeatzeko PUK kodea lortzeko

Alcatelen logotipoa eta izena Alcatelen marka erregistratuak dira eta T&A Mobile Phones Limited-en lizentziarekin erabiltzen dira

Eskubide guztiak erreserbatuta © Copyright 2006.  
T&A Mobile Phones Limited.

T&A Mobile Phones Limited-ek bere ekipoen ezaugarriak aurrez jakinarazi gabe aldatzeko eskubidea du.

euskaltel 

